

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

400 zb.  
www.getxo.eus


>> 2025eko Iraila




## URRIA > ABENDUA 2025 IKASTARO BERRIAK GAZTEBULEGOTIK

DOHAINIK


JOSTEKO  
TAILERRA



LEHEN  
SOROSPENAK



BOXEO



**Nabarmen**<sup>tzekoak</sup>

> Gaztebulegoak hiru ikastaro berri antolatu ditu urteko azken hiruhilekorako

> 284 pertsona udako hiri-udalekuetan

> Gazte Drama, esperientzia pilotutik proiektu egonkorrera



## 284 pertsona udako hiri-udalekuetan

5 eta 12 urte bitarteko 284 neska-mutikok (2024an baino 70 gehiagok), horietatik 23 dibertsitate funtzionala eta/edo desgaitasuna dutenak, parte hartu dute Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako udalekuetan. Uztailean egin ziren Geroa ikastola, San Inazio eta Romo ikastetxe publikoetan.

Kirola, euskal kultura, natura eta aisialdia uztartuz hainbat txango antolatu ziren. Aurten ere bete egin dira helburuak, besteak beste, lana eta familia bateragarri egiten laguntzea, haurrei gizarte eta hezkuntza arloko proiektu bat eskaintzea eta diskriminaziorik gabeko balioak eta jarrerak garatzea.

### BEKA SARIAK

**\*Sormen beka DA!** 18 urtetik gorako sortzaile hasiberrientzako euskarazko esku-hartze artistikoak. 15.000 euroko zuzkidura eta sormen prozesurako eta ondorengo exekuziorako laguntza. Info: <https://labur.eus/k4dyofpb>

**\* Mendi Film Beka 2026,** mendiko kultura sustatzen duten dokumentalak sortzeko. 10.000 euro eta proiektu irabazleari laguntzeko programa bat. Info: <https://labur.eus/9z1pvjud>

#### Romoko Gaztelekuaren programazioa Iraila

**Hilak 7, igandea:** JOLASA: BINGO  
**Hilak 12, ostirala:** SUKALDARITZA: BROWNIE  
**Hilak 13, larunbata:** ESKULANA: SQUISHIES  
**Hilak 17, asteazkena:** JOLASA: TUTTI FRUTTI  
**Hilak 20, larunbata:** IRTEERA: GORLIZKO ITSASARGIA + BOLEIBOL  
**Hilak 26, ostirala:** SUKALDARITZA: HUMMUS  
**Hilak 28, igandea:** IRTEERA: GETXOKO MUNDUKO ARROZAK

#### Uria

**Hilak 1, asteazkena:** ASANBLADA: AZAROKO PROGRAMAZIOA  
**Hilak 4, larunbata:** IRTEERA: JAPAN WEEKEND  
**Hilak 7, asteartea:** JOLASA: JUST DANCE  
**Hilak 10, ostirala:** SUKALDARITZA: PANINIS  
**Hilak 15, asteazkena:** JOLASA: LETS SING  
**Hilak 18, larunbata:** ESKULANA: PIXEL ART  
**Hilak 24, ostirala:** ESKULANA: MARRAZKETA  
**Hilak 26, igandea:** EKINTZA: ZINEMA  
**Hilak 28, asteartea:** APAINKETA: HALLOWEEN  
**Hilak 29, asteazkena:** SUKALDARITZA: HALLOWEEN  
**Hilak 30, osteguna:** ESKULANA: HALLOWEEN  
**Hilak 31, ostirala:** FESTA: HALLOWEEN

#### Algortako Gaztelekuaren programazioa Iraila

**Hilak 6, larunbata:** EKINTZA: UR PUXIKEN GUDA  
**Hilak 11, osteguna:** TORNEOA: MULTIKIROLAK  
**Hilak 12, ostirala:** SUKALDARITZA: BIZKOTXOA  
**Hilak 19, ostirala:** SUKALDARITZA: SANDWICH BEGETALA  
**Hilak 20, larunbata:** TAILERRA: EMOZIOMETROA  
**Hilak 25, osteguna:** TAILERRA: LEGO  
**Hilak 28, igandea:** IRTEERA: GETXOKO MUNDUKO ARROZAK

#### Uria


**Hilak 3, ostirala:** ASANBLADA: AZAROKO PROGRAMAKETA  
**Hilak 9, osteguna:** TORNEOA: FUTBOLINA  
**Hilak 10, ostirala:** SUKALDARITZA: TXOKOLATEZKO CROISSANT  
**Hilak 17, ostirala:** TAILERRA: HILEKOAREN HEZIKETA "ZIKLOKI BIZI"  
**Hilak 18, larunbata:** SUKALDARITZA: PANINIS  
**Hilak 25, larunbata:** IRTEERA: LAUREN GETXO ZINEMAK  
**Hilak 30, osteguna:** ESKULANA: HALLOWEEN KALABAZA  
**Hilak 31, ostirala:** JAIA: HALLOWEEN

## Gaztebulegoak hiru ikastaro berri antolatu ditu urteko azken hiruhilekorako

Udalaren Gazteria Zerbitzuko Gaztebulegoak hiru tailer berri antolatu ditu 2025eko azken hiruhilekorako: *Josteko oinarritzko ikastaroa*, *Boxeo* eta *Lehen Sorospenak*. Ikastaroak dohainik dira eta 16 eta 35 urte bitarteko gazteentzat antolatu dira.

Lehenengo ikastaroa, *Josteko oinarritzko ikastaroa*, gaztelaniaz egingo da, urriko lehen hiru larunbatetan, hilaren 4an, 11n eta 18an, hain zuzen, 11:30etik 13:30era, Algortako Elizondo kaleko 7.ean dagoen tailerrean. Bertaratzen direnek, besteak beste, botoiak josten, kremaileak konpontzen edo barrenak eskuz hartzen ikasiko dute.

*Boxeo* ikastaroa azaroan egingo da Gym Boxeo Izarran, Faturan, ostiraletan, hilaren 6an, 13an eta 20an, 18:30etik 19:30era. Euskaraz eta gaztelaniaz, boxeoko teknikak irakatsiko dira eta prestakuntza



fisikoa eta bizimodu osasungarria sustatuko dira.

Azken ikastaroa, *Lehen Sorospenak*, abenduaren 13an izango da (larunbata), Romo Kultur Etxean, 10:00etatik 14:00etara, gaztelaniaz. Parte hartzaileek oinarritzko teknikak ikasiko dituzte, hala nola

bihotz-biriketako bizkortzea (BBB), desfibriladore bat erabiltzea, eztarri-trabatzen aurka egiten den Heimlich manio-bra, edo iktus baten sintomak ezagutzen jakitea eta haren aurrean nola jokatu.

Argibideak eta inskripzioak: <https://labur.eus/rpzt7amj>

### Sonya Castro taldeko koordinatzaileari elkarrizketa

## Gazte Drama, esperientzia pilotutik proiektu egonkorrera

Sonya Castro arte eszenikotan, gorputz-adierazpenean, dramaturgia eszenikoan eta ahozko narrazioan aditua da, eta azken bi urteetan Gazte Drama taldea koordinatu du, Gaztelekuak erabiltzen duten nerabeentzako kulturarteko antzerki-proiektu inklusiboa. Gazteria zerbitzuaren esperientzia pilotua izaten hasi zena udalerriko nerabeen artean harrera ona izan duen proiektu egonkor bihurtu da.

**G: Noiz sortu zen jarduera honen ideia eta zein helburu-ekin?**

Nire herrialdean, Kolonbian, nerabeekin antzerkia egiten aritzen nintzen. Gaztelekuko nerabeentzako kultura arteko antzerki-proiektu inklusiboa Gazteria zerbitzura aurkeztea erabaki nuen. *Bihur zaitez zure bizitzako heroi* leloarekin, desberdintasunen onarpena eta norberaren buruarekiko maitasuna bezalako gaiak lantzea proposatzen nuen. Interesgarria iruditu zitzairen, ekimen inklusiboa eta kulturartekoa zelako.

**Zenbat pertsonak parte hartu dute proiektuan?**

Prozesu osoan, 2023tik, 11-17 urte bitarteko 25-30 gaztek parte hartu dute. Taldearen barruan, dibertsitate funtzionala eta/edo desgaitasuna duten neska-mutilak, pertsona migratuak eta hemen jaio baina gurasoak pertsona migratuak dituzten nerabeak ditugu.

**Nola egiten da lan tailerre-tan?**

Nerabeekin, lehenik eta behin,



ariketa fisikoa lantzen dugu errutinatik ateratzeko, pertsona horiek energia handia baitute, eta, gero, inprobisazioaren, clownaren, gorputz adierazpenaren eta sormenaren bidez lan egiten dugu, haien irudimenarekin konektatzeko. Halaber, taldean eta haien bizitza pertsonalean sortzen diren emozio eta zailtasunak zeharka lantzen ditugu.

Ikastaro bakoitza amaitu ondoren, arrakasta handiz, publikoari irekitako emanaldiak egin ditugu Romo Kultur Etxean. Aurten emozio nagusiak landu dira, nola adierazi, zer ezkututzen duten, zergatik gertatzen zaizkigun... eta iaz bullyinga, auto-onarpena, desberdinarekiko errespetua, non kokatzen garen eta alternatibak zeintzuk diren landu genituen. Gazteek azken obra sortzen dute, beren bizitzako protagonistak dira eta gaiak aukeratzen dituzte nire laguntzarekin batera. Ikuskizuna elkarrekin sortzen dugu.

**Zer bilakaera ikusi duzu gazteentzako artean?**

Hasi ginenean, oso modu indibidualean funtzionatzen zuten, institututik ezagutzen ziren pertsonen artean tirabiraren bat edo beste ere bazegoen. Apurka apurka, lanarekin, umorearekin, barrekin eta talde dinamikekin, talde bateko kide sentitzen hasi ziren, eta konfiantzan, segurtasunean eta errespetuan irabazi zuten. Lotsak kendu eta hasieran imajinatu ere egingo ez zituzten gauzak egiten auzartzea lortu zuten.

**Eta etorkizunari begira, zer?** Orain beste herrialde batera joango naiz, baina eskerrak eman nahi dizkiot Getxoko Udalari eman didan aukera honengatik. Aprobetxatu nahi dut, halaber, gure jatorritzko herrialdeetatik migratzen dugun pertsonak arlo askotan profesionalak garela aldarrikatzeko, ez soilik garbiketan eta zaintzan. Erakundeei eta ardura postuak dituztenei dei egiten diet aukera bat ematera auzartu daitezten eta konfiantza izan dezaten pertsona migratzaileengan, nirekin egin zuten bezala.